


# Lankidetzazko gobernantza

## Gobernuen eta gizarte zibilaren arteko harreman ereduaren eraldaketa XXI. mendeko erronkei erantzuteko

Arantzazulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

# Hasierako kokapena

Fokoa: Erakunde publiko eta gizarte zibilaren arteko harremanen inguruan hausnartzera gonbidatzea

1. Lankidetzazko gobernantza demokraziaren krisiaren alternatiba gisa
2. Herritarren parte-hartze prozesuei eta lankidetzazko gobernantza sustatzeko erronkei begirada autokritikoa egitea
3. Gobernantzaren berrikuntza nola? Joera batzuk, tokikotik globalera

# Arantzazulab. Gobernantzaren berrikuntzan erreferentzia zentroa

Laborategiaren helburua **lankidetzazko gobernantzan** sakontzea eta berau hedatzea da. Gobernuen eta gizarte zibilaren arteko **harreman ereduaren eraldaketa eta berrikuntza** sustatzen ditugu, hausnarketa , ikerketa eta esperimentazioaren bidez, **herritarrak ahalduntzeko, herri politiketan lankidetzazko gobernantza** sustatzeko eta **demokrazian sakontzeko**



# Zer gertatzen ari da?



# Demokrazia liberalaren krisia

Erakunde publikoak. Sistema politikoa

Herritarrak

# Eta gurean...




### HERRITARREN ERAGIN POLITIKOARI BURUZKO HAUTEMATEA

**Zure ustez, zenbatean uzten dio sistema politikoak zu bezalako herritarrei politikan eragina izaten? (%)**




### ERREGIMEN POLITIKO GUSTUKOENA

**Askotariko erregimen politikoak daude. Ondorengo esaldietatik zeinekin zaude ados? (%)**



# Demokraziari buruzko ulermenak gurean. Lehen emaitzak

**1** Askogatik **erregimen politiko lehenetsia** da demokrazia (10etik 9)

**2** **Balorazioa jaitsi** egiten da **funtzionamendu errealaz galdetuta**, nahiz eta erdia baino gehiago konforme egon

**3** **3tik 2k** uste dute sistema politikoan **eragiteko** herritar arruntek **aukerarik ez** dutela

**4** Proportzio berean, herritar **gehienek** uste dute **politikariei ez zaizkiela axola herritarren iritziak**

**5** **Demokraziak** batez ere **konpromisoaren sentimendua** eragiten dio **herritarren erdiari**, eta **heren bati**, aitzitik, axolagabekeria, **mespretxua edo haserrea**

**6** Herritarrek **demokrazian** gehien bat baloratzen dute: **askatasuna eta eskubideak** egotea, **ongizate ekonomikoa** bermatzea, **gobernuak kontrolatzeko mekanismoak** egotea eta **justizia berdintasuna**. Maila baxuagoko garrantzia: alderdi politikoei, hauteskunde sistemari edo alternantzia aukerei.

**7** Herritarren **10etik 6k** ordezkari bidez **agintariak aukeratzea hobesten** dute parte hartze politiko gisa, baina herritarren **heren batek** ordezkaritza **sistema gainditzeko ereduekin lotzen du demokrazia**

**8** Gobernuei dagokienez, **balio eta printzipioak** eduki ditzaten **lehenesten** dute gehienek (%75) eraginkortasunaren gainetik

**9** Agintariei **balioak eta printzipioak lehenetsi arren, eskarmentua eta prestakuntza eduki dezaten ere eskatzen zaie**. Ildo horretan, irizpide zientifikoei eta adituei paper garrantzitsua aitortzen zaie

**10** Arriskuan balego, **demokrazia defendatzeko prest** agertu da euskal herritarren **%75.**

Lankidetzarako espazio, tresna eta metodo berriak behar ditugu, pertsona, eragile eta sentsibilitate desberdinek elkarrekin hitz egin, entzun eta jardun dezaten.

Lankidetzazko Gobernantza

# Lankidetzazko Gobernantza mapa



Gipuzkoan lankidetzazko gobernantza bultzatzen ari diren erakunde eta proiektuen mapa bat, haien ibilbidea eta jarduera sakonean ulertzeko eta haien arteko saretze prozesuaren oinarriak jartzeko.

# Lurraldeko lankidetzazko gobernantza mapa

## Abiapuntuko markoa: Definizioa eta 6 irizpideak

»Lankidetzazko Gobernantza erakunde publiko, gizarte eragile eta herritarren artean instituzionalizatutako lankidetza da, herri politiken ekosistema ahaldundu eta eraginkortzeko; hau erakundeen, gizarte eragileen eta herritarren arteko gizarte kapitala sendotuz egin behar da, deliberazio eta ekintza partekatuaren bidez»

- GOBERNUAREN BORONDATEA
- ERAGILEEN ANIZTASUNA
- ERAKUNDEAREN GAITASUNAK
- EBALUAZIOA
- AGENDA PUBLIKO PARTEKATUA
- GUNEAK

IRISMENA

| | |
|---|---|
| 88 Kontaktatutako udalak | 31 Elkarrizketatutako udalak |
| 11 Garapen agentziak | 13 Ezagutza eragileak |
| 37 Online galdetegia erantzun duten udalak | 25 Udal 2 kontraste saiotan |

# Lurraldeko LG mapa

## Azterlanaren ondorio batzuk

**Lankidetzazko gobernantzaren kontzeptualizazioaren** eta irizpideen inguruko adostasuna.

**Herritarren desafekzioa nabarmendu da** eta parte hartzea sustatzeko formula berriak behar dira.

Aktore guztiek erakutsi dituzte **herritar eta eragileekin batera garatutako praktika anitzak,** borondatetik harago.

**Herritarrei entzuteko, hausnartzeko eta erabakietan eragina izateko espazioak sortu dira.** Erabakimena partekatzeko edo herritaren ahalduntzea bilatzen duten praktikak gutxiago dira.

**Boterea edo erabakimen partekatzeak bestelako elkarlanerako moduen ezarpena eta erantzukidetasuna eskatzen ditu.** Lankidetzazko gobernantzak hau sustatu behar du.

**Lankidetzazko gobernantzaren praktiken erronkek, egituratze, sistematizazio eta esperimentazioarekin dute zerikusi handiena:** gune egonkorren diseinua, gaitasunen garapena, tresna berrien beharra, antolamendu eta prozedurak sinplifikatzea.

**Kultura politiko baten beharra diskurtso mailan esplizitatzen da.** Lehia politikoaren dinamika berriak eta legegintzaldia gaindituko duten epe luzeko adostasunak behar dira.

**Lankidetzazko gobernantzaren praktika ikaskuntza-dinamika gisa antzemateko ikuspegiaren falta.** Praktikak gehienbat behar konkretuei lotuta, agenda publiko partekatua eraikitzeko epe luzeko begirada baino.

**Administrazio maila ezberdinetako erakundeen artean lankidetza-harremana eraikitzea erronka gisa ikusten da** (momentuz zerbitzu emaile-hartzaile logikatik gertuago).

# Nola aktibatu gizartea desafekzio garaiotan?

1. Parte-hartzearen ikuspegi kosmetikoa gainditzea
2. Lankidetzazko Gobernantza - Boterea partekatzearen erronka eta lidergo publiko berriak
3. Berrikuntza eta esperimentazioa: tresnak, gaitasunak, espazioak

**Informatu:**
Informazioa eman (alde bakarra).

**Kontsultatu:**
Feedbacka eta analisi publikoa lortzea, alternatibak eta/edo erabakiak lortzea.

**Engaiatu:**
Prozesuan zehar zuzenean herritarrekin lan egitea, kezka eta asmo publikoak etengabe ulertu eta kontuan hartzen direla ziurtatzeko.

**Lankidetzan aritu:**
Herritarrekin lankidetzan aritzea erabakiaren alderdi guztietan, alternatiben garapena eta irtenbide gogokoenaren identifikazioa barne.

**Ahaldundu:**
Azken erabakia herritarrei uztea.

*Parte hartze publikoaren espektroa (Spectrum of Public Participation, IAP2)*
https://organizingengagement.org/models/spectrum-of-public-participation/

# Gobernantzaren berrikuntza

## Nazioarteko joerak

1 **Demokraziaren ereduak berpentsatu.** Demokrazia deliberatiboa

2 **Teknologia.** Herrigintza mundu digitalean

3 Trantsizio sozio-ekonomiko handiei erantzuteko **azpiegiturak** (zibikoak, sozialak, kontraktuzkoak). **Berrikuntza ekosistemak** eta *sandbox*-ak

4 Politika publikoen kudeaketarako **ikuspegi berriak.** Aldaketarako narratiba berriak: Lidergo komunitarioa eta botere banaketa

5 Adimen eta **irudimen kolektiboa** etorkizuna irudikatzeko eta politikak birmoldatzeko



## **Lankidetzazko gobernantza praktikan: Demokrazia deliberatiboaren** hurbilpenak eta prozesuak aktibatzea

1. Tokiko gaitasunak eta ezagutza garatu
2. Instituzionalizazioa

**2 Herritarren Batzarrak amaituta.** Aitzindariak

**Tolosako herritarren batzarra**: Ongizate mentala /emozionala lankidetza publiko- komunitariotik

Arantzazulab GIZARTE BERRIKUNTZA SOCIAL INNOVATION · TOLOSA · OECD

**Gipuzkoako herritarren batzarra**: landa eremua eta klima

Arantzazulab GIZARTE BERRIKUNTZA SOCIAL INNOVATION · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro · deliberativa

# Berrikuntza ekosistemak eta trantsizio eko-sozialerako sandbox aurreratuak



1. Berrikuntza ekosistemak: egiturak, rolak, lidergoak, inpaktua, gaitasunak, I&G, harreman-ereduak, ….
2. Finantzazio eredu berriak (kapital inkrementaletik eraldatzailera, multi-kapitala)
3. Erremu erregulatorioan esperimentazioa



***"Gaur egungo gizarte indibidualistan, helburu kolektiboak izatearen aurka dago dena"***

***"Boterea eta lidergoa elkarbanatzeak mugimenduak sortzen ditu, ekintza gaitasuna lantzen du "***

## Arantzazulab-en memoria




## *Etorkizuna Eraikiz kasua*





# “Pertsonak ahaldunduz, euskal gizartea eraldatu eta mundu gizatiarragoa lortzeko”

**Arantzazulab**

Arantzazulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION

Naiara Goia
ngoia@arantzazulab.eus